

## DATORRENA

Herritartasunaren irudi sakon  
eta ikusgarria IÑAKI SOTO > 3

ANDRES URRUTIA: «Euskaltzaindian  
esfortzu esanguratsua egiten ari gara  
jendearengana hurreratzeko» > 18

2018ko uztailaren 21a | XII. urtea • 578. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



# ABORTUA, MAHAI GAINEAN

EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSA SU BIZIAN BORBORKA ARI DEN GARAIOTAN, ABORTUAREN DESPENALIZAZIOA MAHAI GAINEAN DAGOEN GAIA DA, ARANTZATSUA BEZAIN GARRANTZITSUA. MAIATZEAN IRLANDAN ETA EKAINEAN ARGENTINAN, PAUSOA EMAN DUTE AURRERA. ORAINDIK, BAINA, ASKO DAGO IRAULTZEKO. > 4 Paul FAITH | AFP



**Teodora Vasquez, hamar urte preso  
El Salvadorren abortatu izana  
leporatuta** 04

**Beertoki elkartekoek Zappa sortu  
dute, benetako herri batek  
garagardo bat behar duelako** 10

**E.lkarrizketa: Andres Urrutia,  
Euskaltzaindiko eta Azkue  
Bibliotekako burua** 18

**Txikitako lagun handiak** 21

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 23



**SINADURAK:**

03 **Iñaki Soto:** Herritartasunaren  
irudi sakon eta ikusgarria

08 **Ander Gortazar Balerdi:**  
Autonomoak (II)

09 **Mikel Zubimendi:**  
Oporretarako gomendioak,  
erresistentziarako gida ttipia

14 **Alai Zubimendi**

15 **Maidier Iantzi:** Berandu da,  
baina...

15 **Xabier Mikel Errekondo:**  
Haurdunaldi subrogatua ala  
alokairuzko sabela?

16 **Gorka Zozaia:** Udako plan bi

17 **Iker Barandiaran:** Nola eskertu

22 **Garazi Goia:** Oporretarako  
irakurketak



{ datorrena } Iñaki Soto

# Herritartasunaren irudi sakon eta ikusgarria

S arri, ideia soziopolitiko estrategiko batekin bat egin arren, egunerokotasun politikoan ez diogu ideia horri bideragarritasun praktikoko errazik ikusten. Alegia, epe ertain eta luze-  
ra emankorrek izan daitezkeen zenbait ideia praktika politikora eramaten zailak izaten dira. Gizartearen pentsamoldea edo kultura politikoa aldatzeko gai diren ideiez ari naiz, jakina.

Herritartasunarena gure herriaren etorkizuna markatuko duen kontzeptua da. Beste ikuspuntu batzuetatik azter badaiteke ere, jatorrian euskal auzia herritartasunaren gaineko auzia ere bada. Hemen maila desberdinetako herritarrak bizi gara: zenbait herritarren proiektu politikoa konstituzionalki bermatuta dagoen bitartean, besteona konstituzionalki mugatuta baitago. Publikoki eta pribatuan izan ditudan eztabaida guztietan badago unionistek erantzuten arazo handiak dituzten galdera bat: zergatik zure proiektu politikoa bermatuta dago eta nirea, independentziarena, ez da bideragarria? Zergatik zure gogo politikoa nireak baino gehiago balio du? Beste era batera esanda, zergatik naiz ni bigarren mailako herritar?

Gure eztabaida tradizioaletatik harago, gaur egun eta hemen, herritartasunaz gogoeta egiteak etorkinei buruz hitz egitera behartzen gaitu. %10era ez dira iristen gaur egun, baina gero eta gehiago izango dira. Komunitateen arteko talka demokratikoan, determinanteak izan daitezke. Historikoki, botere-harremanak direla medio, unionismoaren alde kokatu izan dira horietatik asko. Estatuek, ordea, zentzu askotan hirugarren mailako herritartzat dituzte.

Herritartasuna eskubideekin lotzen duen mugimendua izanik, independentismoak lan-esparru interesgarria du alor horretan. Euskal Estatu baten proiektzioan

komunitate horiek tokia topatu behar dute. Eta ideia borobilez harago, toki hori ez da diseinu bidez erabakiko, baizik eta praktika politiko eta kulturalen bidez.

## SANFERMINETAN DENA DA POSIBLE

Azken urteotan, sanferminetako azken egunean, Kulturaren Kalejira egiten da. Hemen bizi diren komunitate eta jatorri desberdinetako pertsonak beren kulturen adierazle den desfile bat egiteko batzen dira.

Aurten 1.400 bat pertsonak hartu dute parte eta 67 elkarre ibili dira antolakuntzan, Iruñeko Udalaren babesarekin. Uztailaren 14an Gaztelu plazan gutxienez Peru, Senegal, Bolivia, Venezuela, Argentina, Kolonbia, Nikaragua, Bulgaria, Ekuador, Ukraina, Sahara, Mali, Nigeria eta Ijitoen Komunitateko herritarrak euskal herritarrekin bildu ziren, norbera bere komunitatearen kulturako jantzi, musika-tresna eta aldarrikapenekin [irakurri hemen Aritz Intxustaren kronika, gazteleraz: [goo.gl/cv5BEm](http://goo.gl/cv5BEm)]. Ikusgarria izan zen.

Herritartasunaren eta kultur aniztasunaren eztabaidan borobilak diren ideiak izan ohi ditugu, baina horiek praktikara eramaten zailtasunak nabarmenak dira. Esperientzia honek ideia horien gaitasun estrategikoa erakusten du, maila xumean eta jaien testuinguruan bada ere. Gainera, korapilatsuak diren hainbat eztabaidatan irtenbide zuzenak eskaintzen ditu. Adibidez, elkarlana bultzatzen du, paternalismorik gabe eta protagonismoa komunitate horien esku utzita. Gutxiengo eta gehiengo arteko harremanetan urratsak ematen ditu, bizikidetzaren beste alderdi bat erakutsiz. Mundura herri hobe gisa proiektatzen gaitu. Eta, zergatik ez, dekantazio politikoa bultzatzen du, baina ez zentzu instrumentalean, baizik eta sakon eta aberatsean. •

Herritartasuna eskubideekin lotzen duen mugimendua izanik, independentismoak lan-esparru interesgarria du etorkinen alorrean. Euskal Estatu baten proiektzioan komunitate horiek tokia topatu behar dute

# TEODORAREN AHOTSA

## Hamar urtez preso egon da El Salvadorren abortu bategatik

**P**asa den maia-  
tzaren 25a egun  
historikoa izan  
zen Irlandan.  
Abortua legeztatzearen alde  
bozkatu zuten hautesleen  
%66,4k. Eta %33,6k kontra.  
Parte hartzea %64,1ekoa izan  
zen. Dibortzioa legeztatzeko  
1996an egindako erreferen-  
dumetik ez zen hain parte  
hartze handirik Irlandan boz-  
keta batean. Emaizak jakin  
ahala, festa erraldoia egin zu-  
ten Dublineko gazteluan bil-  
dutako herritarrek. Emaku-  
meen eskubideen defentsan  
emandako aurrerapausoa os-  
patu zuten. Bozketa Eliza ka-  
tolikoarentzat kolpe gogorra  
zela eta irlandarrak Elizak gi-  
zartean eta politikan histori-  
koki izandako boterea iraul-

 **ATZERRIA /** Ainara Lertxundi

Teodora Vasquez otsailaren 15ean geratu zen aske abortu bat izateagatik hamar urtez preso egon ostean. «Homizidio larriagotua» egotzita, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten abortua guztiz debekatuta dagoen El Salvadorren. Behin aske, Europan izan da emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko kanpaina baten baitan.

tzen ari direla nabarmendu zuten Irlandako eta Britainia Handiko hedabideek.

Ekainaren 14an, Argentinako Diputatuen Ganberak abor-  
tuaren despenalizazioa onartu  
zuen hogeitau ordu baino gehia-  
go iraun zuen eztabaida baten  
ostean. Bozketaren emaitza es-

tua izan zen oso: 129 baiezk  
eta 125 ezezko. Abstentzio ba-  
karra egon zen. Lege proiektu-  
aren zirriborroaren artiku-  
luak banan-banan eztabaidatu  
zituzten. Haurdunaldiaren  
etenaldia lehen hamalau aste-  
etan baimentzen du proiektu-  
ak, aurrebaldintzarik gabe.

Teodora Vasquez  
salvadortarra pasa den  
otsailaren 23an, aske gelditu  
eta egun gutxi batzuetara.  
Marvin RECINOS / AFP

Egun, haurdunaldia bortxa-  
keta baten ondorioz bada edo  
amaren osasuna arriskuan ba-  
dago soilik dago onartuta  
abortua Argentinan. Indarrean  
dagoen Zigor Kodea 1921. urte-  
koa da. Baina mediku askok  
uko egiten diote abortuak egi-  
teari eta prozedura judizialak  
asko luzatzen dira, askotan  
haurdunaldia eten ahal izate-  
ko epea gaindituz. Gaia Sena-  
tuaren esku da orain. Kanean,  
hotz handia egin arren, milaka  
emakume bildu ziren lege  
proiektu berriaren alde. Mau-  
ricio Macri presidenteak kon-  
tra egin zuen, baina bere al-  
derdiko legebiltzarkideei nahi  
zutena bozkatzeko askatasuna  
eman zien.

«Argentinak eman duen le-  
hen urrats honekin pozik gara.  
Emakumeek ez dute beraien  
bizitza arriskuan jarri beharko  
edo espetxera joan beharko.  
Kontinentean lege murriztai-  
leak dituzten herrientzako  
eredu bat ere bada. Milioika  
emakume hil egin dira edo bi-  
zi osorako ondorioak paira-  
tzen dituzte abortu ez segu-  
ruak egiteagatik», salatu zuen  
Amerikarako Amnesty Inter-  
national gobernuz kanpoko  
erakundeko zuzendari Erika  
Guevara Rosassek. Human  
Rights Watcheko zuzendariak,  
berriz, «emakumeen eskubi-  
deak babesteko bozketa histo-  
rikoa» zela esan zuen.

Unicefen arabera, urtero  
3.000 haur jaiotzen dira Ar-  
gentinan 10 eta 14 urte bitarte-  
ko neskatoen artean. Gainera,  
abortua amaren heriotzaren  
lehen arrazoia da herrialdeko  
24 probintzietatik 17tan.

### KANPORATUTAKO MEDIKUA

Irlandan bezala, Argentinan  
ere Eliza katolikoak pisu han-  
dia du. Aita santua bera argen-  
tinarra da. «Argentinarrak iza-



nik diputatuen hautuak mina ematen digu. Espero dugu Senatuan elkarrizketarako tarte zabaltzea. Bazterketari, indarkeria matxistari eta txirotasunari aurre egiteko benetako neurriak behar ditugu: haurdunaldiarekin amaitzea ez da irtenbidea. Abortua emakume horientzat beste zama bat izango da, beste trauma bat alegia», helarazi zuen Apezpiku Konferentziak. Aita santuak berak abortua nazien krimenekin alderatu du. «Arazo fisiko bat duen umetxoa hiltzea eskularru zuriarekin egiten den krimena da», esan zuen Franciscok.

La Riojako probintzian, mediku anestesista bat kanporatu dute sare sozialetan abortuak anestesiarik gabe egingo zituela esateagatik. Ospitaleko guardia batean aborturen bat egitea suertatuko balitzaio, anestesiarik gabe egingo lukeela adierazi zuen.


Gaiak Argentinako gizartean eta, oro har, Latinoamerika osoan sortzen duen polarizazioaren isla da. El Salvadorren, Hondurasen, Haitin, Nikaraguan, Dominikar Errepublikan eta Surinamen abortua erabat debekatuta dago. Espetxe zigorrak altuak dira gainera, bai emakumearentzat baita laguntzen dionarentzat ere.

Preso egon den emakume latinoamerikar horietako bat Teodora Vasquez da. Bartzelonan eta Euskal Herrian izan da emakumeen eskubideen inguruan hitz egiteko eta El Salvadorko Abortuaren Legea aldatzeko beharra Europan aldarrikatzeko. Otsailaren 15ean aske gelditu zen espetxean hamar urte eta zazpi hilabetez egon ostean.

«Egoera desberdinetara moldatzeko gaitasuna dut. Niretzat ederrena aske gelditu nin-

**«Espetxean bizirauteko gogoa eta grina duenak soilik lortzen du bizirautea. Urte horiek nire bizitza betirako markatu dute. Oso une zailak pasa nituen, asko sufritu nuen»**

**«Kartzelan ez duzu inolako pribatutasunik. 3.000 emakume geunden. Bertan egotea heriotza motel baten antzekoa da», adierazi dio GAUR8ri Teodora Vasquezek**



Argentinako Apezpiku Konferentziako idazkari nagusia. Eitan ABRAMOVICH | AFP

tzenetik nire semearekin eta familiarekin berriro egotea izan da», azaldu zion GAUR8ri nola sentitzen zen galdetuta.

«Ama eta semea izateaz gain, lagun handiak gara. Harreman bikaina dugu. Nire semea den-dena da niretzat», adierazi zuen. Semeak 14 urte ditu egun. Espetxean egon zen bitartean soilik hiru alditan ikus ahal izan zuen. Vasquezek gurusoak San Salvadorretik lau ordutara dagoen herrixka batean bizi dira-eta. «Ez zuten dirurik bisitan joateko. Bidaian umea gosetu egiten bazen, ez zuten dirurik. Gurusoak urtean bitan joaten ziren. Nire arreba hilabeteen behin zihoan bisitan, hiriburuan bertan bizi baita».

#### «ERRUGABEA NAIZ»

«Orain jendartean egotera egokitzen ari naiz. Ekonomikoki independentea izan nahi dut, nire semea lagundu, eta, aldi berean, espetxean gelditu diren kideen ahotsa izan nahi dut; haien egoeraren eta bizi-

penen bozgorailu alegia», nabarmendu zuen.

Bere hitzetan, espetxean egondako urteak oso zailak izan ziren. «Espetxean bizirauteko gogoa eta grina duenak soilik lortzen du bizirautea. Urte horiek nire bizitza betirako markatu dute. Oso une zailak pasa nituen, asko sufritu nuen. Baina, sufrimendua handia zenean ere, ez nuen inoiz galdu borrokarako grina. Aurrera egin nahi nuen, nire semearengatik, bera baita nire bizitzaren motorra. Berarengatik ahalegindu nintzen», azaldu zuen. «Kartzelan ez duzu inolako pribatutasunik. 3.000 emakume geunden. Bertan egotea heriotza motel baten antzekoa da».

Vasquezek aburuz, legeak ez ditu irizpide zientifikoak kontuan hartzen, baizik eta irizpide pertsonaletan oinarrituta dago. «Epaileek bidegabe jokatzen dute. Gizon eta emakumeak frogarik gabe zigortzen dituzte. Ni errugabea naiz eta nire kontra ez zuten inolako

## DEBEKUAK ABORTUA ARRISKUTSU BIHURTZEN DU

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, urtero seguruak ez diren 22 milioi abortu egiten dira munduan, gehienak garapen bidean dauden herrialdeetan. Haurdunaldia klandestinoki eteteak bizi osorako ondorio larriak izan ditzake emakumearentzat. Bost milioi emakumek desgaitasunak sufritzen dituzte segurua ez zen ebakuntza jasan izanagatik. Amnesty International erakundeak salatu duenez, debekuak ez ditu abortuak saihesten, eta, gainera, klinika pribatu bat ordaintzeko edo beste herri batera joateko baliabide ekonomikorik ez duten emakumeak arriskutsuak izan daitezkeen abortuak egitera behartzen ditu. Antisorgailuak eskura izatea zaila den herrialdeetan, abortu tasa dezente altuagoa da antisorgailuak erraz eskuratu daitezkeenetan baino. Ehunekoak ere gutxitu egiten dira herritarrek, batez ere gazteek, antisorgailuen inguruko informazio egokia eta sexu hezkuntza jasotzen duten herrialdeetan.



Teodora Vasquez,  
gurasoekin aske gelditu  
zen egunean.  
Marvin RECINOS

frogarik. Ez zuten azterketa medikurik aurkeztu nik nire umetxoari mina egin niola frogatzen zuenik. Nire alboan hilik zegoen ume jaioberri bat aurkitu zutelako zigortu eta espetxeratu ninduten; hala nahi izan zutelako, eta ez frogaren bat zutelako», nabarmendu zuen.

Ilusioz espero zuen ume-txoa 39. astean galtzeaz gain, haren heriotzaren ardura leporatu zioten. «Benetan mingarria izan zen. Mundua gainera erori zitzaidan. Nire alabaren jaiotzarekin oso ilusionatuta eta pozik nengoen, horrela neska eta mutila izango nituelako. Erditzeko unea iritsi zenean, ordea, lantokian nengoen bakarrik. Ez dakit haurra hilik jaio zen edo jaio eta berehala hil zen. Baina, Polizia iritsi orduko, hilik zegoen. Nik neuk deitu nion Poliziari zazpi aldiz gutxienez laguntza eske erditzeko minak sentitzen nituelako. Baina ez ziren garaiz etorri. Konortea galdu eta gero, nire onera itzu-

li nintzenez, polizia inguratu nengoen eta umea hiltze-agatik atxilotuta nengoela esan zidaten. Gorpuari egindako autopsian ez dago inolako traumarik, ez da ubeldurarik antzematen. Ez zuten nire kontrako frogaz sendorik. Ikerketa egokia egin zezakeen abokaturik ez nuenez, zigortu egin ninduten. Ez nuen baliabide ekonomiko nahikorik abokatu on bat ordaintzeko», gogora ekarri zuen Vasquezek.

«Ez nuen halakorik gerta zitekeenik espero. Agian, gauza txarretan sartuta bazaude, atxilotuko zaituzten beldur izan zaitezke, baina hori ez

**Vasquezen auziak izan duen oihartzunak bultzatuta, Zigor Kodearen 133. artikulua aldatzearen aldeko aldarrikapenak biderkatu egin dira El Salvadorren**

**Ekainaren 14an, Argentinako Diputatuen Ganberak abortuaren despenalizazioa onartu zuen hogeitau ordu baino gehiago iraun zituen eztabaida gogor baten ostean**

zen nire kasua. Nik ez nuen ezer txarrik egin. Nik nire alaba maite nuen. Bene-benetan, ez zitzaidan inoiz burutik pasa preso egongo nintzenik».

Nolakoak dira El Salvadorren emakumeentzako kartzelak? «Benetan kaskarrak dira. Ez dago leku okerragorik bizitzeko El Salvadorren. Bidegabekeria izugarria da. Presoek ez dute osasunerako eskubiderik, ur horniketa ez da nahikoa, elikadura eskasa eta oso kalitate txarrekoa da, ez da elikadura osasungarri eta orekatuak presoentzat».

Aske gelditu zen arren, ez dago epairik errugabea dela dioenik. «Nahiz eta Estatua-arentzat errudun izaten jarraitu, aske nago eta bidaiaitzeko aukera dut. El Salvadorretik kanpo bira egiten ari naiz. Baina nire kideek preso jarraitzen dute. Aske geldi daitezen jarri ditugun helegiteen tramitazioa bizkortzea eskatzen dugu. Ministroei eta ardura politikoa dutenei legeak berrikustea eta emakume horien egoerari ir-

tenbidea ematea eskatzen diegu. Bestela, zigor guztia bere osotasunean bete beharko dute eta gazteak dira gehienak, 19 eta 30 urte bitartekoak. Pertsona guztiek bigarren aukera bat merezi dute, baita errudunak direnek ere. Baina guk, errugabeak izanik, ez dugu preso egon beharrik».

#### BESTE LEGE BAT ALDARRIKATUZ

Vasquezen auziaren ondotik, El Salvadorko Zigor Kodearen 133. artikulua aldatzearen aldeko aldarrikapenak bikoiztu egin dira. Abortua ondorengo hiru egoeratan baimentzea eskatzen dute: haurdunaldia bortxaketa baten ondorioa denean, amaren bizitza arriskuan dagoenean edo umekiak behin jaiota bizirauteko aukerarik ez duenean. Legebiltzarrean abortuaren kontra daudenak gehiengoak dira.

«Abortuaren debekuak ondorio oso larriak ditu emakumeen osasunarengan eta bizitzarengan. Eztabaida lasaia go bat behar dugu, errealitatean eta argudio zientifikoetan oinarritutako eztabaida alegia», nabarmendu du Morena Herrerak, Abortu Terapeutikoa Despenalizatzearen Aldeko Elkarteko kideak.

El Salvadorren indarrean da goen Zigor Kodearen arabera, abortua bi eta zortzi urte bitarteko kartzelarekin zigortzen da. Baina epaileentzat eta fiskalentzat haurra galtzea "homizidio larriagotua" da eta delitu hori 30 urtetik 50era bitarteko kartzelaldiarekin zigortzen dute. Gaur egun 24 emakume preso daude haurdunaldian umea galtzeagatik. Egoera horretan dauden emakume gehienak baliabide eskasekoak dira.

Abortua despenalizatzeko eztabaida 2016ko urrian plaza-

ratu zuen Gobernuak, FMLN-ren eskutik. Legebiltzarrean 23 eserleku ditu. Auzitegi Gorenaren epaiaren ondotik indarra hartu du gaiak.

Giza Eskubideetarako Nazio Batuetako Goi Mandatariak, Zeid Ra'ad Al Husseinek Legebiltzarrerera eskutitza bidali zuen pasa den apirilaren 6an. «Legearen erreforma behar-beharrezkoa da, El Salvadorrek giza eskubideen defentsan dituen konpromisoak bete behar ditu», plazaratu zuen.

Horretaz ohartarazteko, Vasquezek Europatik bira egin zuen apirilean. «Egoera horretan egon eta emakume bakoitzaren espedientea ezagutzen dugunok mugitzen ez bagara, nork egingo du? Inor ere ez, eta emakume horiek espetxean zimelduko dira. Ezin dugu hori gertatzerik onartu», adierazi zuen.

«El Salvador herri kontserbadore eta erlijiosoa da. Kultura matxista batean bizi gara eta mutikoek txiki-txikitatik bizi dute kultura hori. Horregatik gaude gauden moduan, horregatik urratzen dituzte emakumeon eskubideak. Ez dute guk gure gorputzaren jabe izatea nahi. Guban boterea izaten jarraitu nahi dute, zer egin eta sentitu behar dugun agintzen. Eta ni ez nago prest horrelakorik gehiago jasateko: nire erabakien jabe izan nahi dut. Erabat libre izan nahi dugu eta ez dugu nahi emakume eta neskato gehiago espetxera joaterik egin ez duten delitu batengatik», salatu zuen.

#### «BEATRIZEN AUZIA»

Beatriz gazteari haurdunaldia etetea ukatu zioten 2013an. 22 urteko emakumeak lupus gaixotasuna zuen eta haurdunaldiarekin jarraitzekotan bere bizitza arriskuan egon ziteke-

en. Horrez gain, espero zuen umekiak ez zuen bizirauteko inolako aukerarik, ez baitzuen garunik. Bere eskaera El Salvador doko Auzitegi Gorenera iritsi zen baina ez zioten abortu terapeutikoa baimendu eta haurdunaldiarekin jarraitzea behartu zuten. Giza Eskubideen Amerikarteko Auzitegiak Gobernuari abortu terapeutikoa baimentzeko agindu zion. Jada haurdunaldiaren 20. astean zegoenez –aste horretatik aurrera haurra galtzea ez da abortu gisa hartzen legediaren arabera–, urgentziazko zesarea egitea onartu zuen Osasun ministroak. Beatrizen umea jaio eta orduetara hil zen. «Nik bizi nahi dut, batez ere dudan beste umeagatik, 13 hilekoa. Espero dudana haurra osasuntsu egongo balitz haurdunaldiarekin jarraituko nuke, nahiz eta nire bizitza arriskuan jarri. Hala egin nuen nire lehen haurdunaldiarekin. Baina, zoritxarrez, bigarren ume honek ez du burmuinik eta ezin izango da bizi sabeletik kanpo», agertu zuen orduan gazteak. Abortua legeztatzeke borrokaren sinbolo bihurtu zen Beatriz.

Iazko urriaren 4an hil zen Beatriz. Abortu Terapeutikoa Despenalizatzearen Aldeko Elkarrekin azaldu zenez, auto istripu bat izan zuen. Ospitalera joan eta alta eman zioten, baina ondoren arnasketa arazoak izan zituen. Lupusa izateaz gain, pneumoniaz gaixotu zen eta horrek bi bihotzeko eta heriotza eragin zizkion.

Eztabaidaren erdian, San Salvadorreko artzapezpikuak, Jose Luis Escobarrek, talde politikoei eta horien ordezkari erakundeetan abortuaren kontra egitea eskatu die. «Abortua legeztatzearen aldeko proposamenen harira, legebiltzarkide eta alderdi guztiei eskatu

**«El Salvador herrialde kontserbadore eta erlijiosoa da. Kultura matxista batean bizi gara eta mutikoek txiki-txikitatik bizi dute kultura hori. Horregatik gaude gauden moduan»**

**San Salvadorreko artzapezpikuak, Jose Luis Escobarrek, talde politikoei abortuaren kontra egitea eskatu die. «Ez dezatela krimen hain larria legeztatu», esan berri du igandeko mezan**

nahi diegu ez dezatela krimen hain larria legeztatu», adierazi zuen igandeko mezan.

#### «JAINKOAREN AGINDUA»

«Eliza beti bizitzaren alde egongo da eta inoiz ez heriotzarekin. Jainkoak ez hiltzea agintzen digu. Ume bat hiltzea Jainkoaren legearen urraketa oso larria da», gaineratu zuen Escobarrek.

Medikuen Elkargoak ere egungo legedia ez aldatzea

Irlandan maiatzaren 25ean abortua legeztatzearen alde egin zen erreferendumen emaitza ospatzeko Dublineko gazteluan egindako elkarretaratzea. Paul FAITH

exijitu du eta medikuei aborturik ez egiteko eskatu die. «Ez dugu egungo legea aldatzerik nahi. Amaren bizitza ez da aitzakia izan behar beste bizitza batekin amaitzeko. Medikuek amaren eta jaiotzearen denburekin amaren bizitza salbatzera behartuta daude», esan du berriki komunikatu batean. «Medikuek ezin du inor hil bere jardunarekin edo ez-egiteko jardun batekin. Horri eutanasia deitzen zaio. Borondatezko abortua hutsegite etiko eta deontologiko larria da. Biologian oinarrituta, sortzen den une beretik, gizakiak bizitzeko eskubidea du», nabarmendu du.


Medikuen Elkargoak 37 elkarrekin osatuta dago. Abortuaren aldeko kanpainaren eta ekin-tzaileen aurka ere gogor egin du. «Datuak eta kontzeptuak manipulatzeko erabiltzen dituzte herritarak nahasteko helburu baka-rrarekin», dio komunikatuak.





**Ander Gortazar Balerdi - @derzu\_uzala**  
Arkitektoa

## Autonomoak (II)



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

**P**asa den hilean ibilgailu autonomoen jabetza-ereduaz eta efizientziaz jardun nuen zutabe honetan bertan, argudiatuz arkitekturari eta espazio publikoari eragingo dizkion aldaketak bi kontzeptu horien araberrakak izango direla. Hurrengo baterako-alegia, gaurko-utzi nituen aldaketa horiek har ditzaketen formak.

Aldaketa nagusia, zalantza handirik gabe, aparkalekuarena izango da. Gaur egun, aparkaleku perfektua helmugatik gertuen dagoen hori da, hau da, ahalik eta gutxien ibiltzea ahalbideratzen digun espazio preziatua. Ibilgailu autonomoarekin bi gauza gerta daitezke: jabetza-ondasun batek erabilera-ondasun izatera pasako balitz, autoak taxi baten moduan funtzionatuko luke ia, eta, ondorioz, aparkaleku kontzeptuak zentzua gal

lezake. Hala ez balitz, eta ibilgailu pribatuak norberaren jabetza-ondasuna izaten jarraituz gero, aparkaleku beharra ez litzateke desagertuko, baina jada ez luke zertan helmugatik gertu egon behar.

Imajinatu panorama: autoak laneko atarian bertan uzten zaitu, eta aparkaleku bila doa segidan bere kasa, doako tokiren batera posible bada, hiria-kanpoaldera-edo. Efizienteagoa izango da ibilgailu autonomia, baina hara non lehen egiten ez zituen hamaika kilometro estra egingo dituen bat-batean.

Bata ala bestea gertatu, aparkatzeko espazio klasikoaren eraldaketa saihestezina izango da, eta badira jada hipotesi hori aintzat hartzen duten hainbat proiektu arkitektoniko. Kasu batzuetan onerako, atseginago izango diren kale estuak esaterako. Beste batzuetan, jakizue: zer egin zabalgunen be-

rrietako hiribide zabalegiekin edo lurrazpiko aparkalekuekin?

Kale eta hiribideetan aldaketa gehiago ere imajina ditzakegu: ibilgailuak adimentsuak eta autonomoak badira, beharko al ditugu semaforoak, zebrabideak, zintarriak, seinaleak eta gure espazio publikoan ohiko bihurtu diren beste hainbat elementu? Nork diseinatuko du oinezkoen eta ibilgailuen arteko legitimitate-talka denbora errealean ebatziko duen algoritmoa? Espazio publiko txukunagoa izango dugu ala publizitatez beteko dugu gidariek errepidean arreta ipintzea ez delako izango jada beharrezko?

Jevonsen paradoxa ere gerta liteke: modu motorizatuan mugitzea efizienteagoa izango da, eta, ondorioz, gehiago mugituko gara. Erosketak egitera joan ordez, denda-ala erosketak zuzenean- etor daiteke gugana. Bileren batera joan ordez, bilera-gela etor daiteke gure bila, eta bista politak dituen leku batera eraman gaitzake bileren inguru atsegin batean egin dezagun. Autoz ibiltzeko arreta jada beharrezkoa izango ez denez, urrunago joan ahal izango gara lanera egunero, auto barruko denbora aprobetxatu-edo ahal izango dugulako. Areagotu egin daiteke, beraz, espazioaren funtzio espezializazioa, eta, horrekin, lurraldeen arteko arrakala.

Aurrerapen teknologiko guztiekin gertatzen den moduan, ibilgailu autonomoak agertoki berri bat irekitzen du, bere indargune, ahulezia, aukera eta mehatxu guztiekin. Aurreko botere-harremanak zalantzan jartzen dira, “hiria izateko eskubideak” eta “mugitzea eskubideak” interes komertzial ezberdinekin talka egin dezakete, ala, kontrara, elkar elikatu. Prest dago joko zelaia, hamaikakoarekin asmatzea falta. •

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

# Oporretarako gomendioak, erresistentziarako gida ttipia

hes betea zilegi balitz...» dio kantu ederrak. Eta erabaki dut: zilegi da. Nekatuta iristen da bat udarara, hainbeste Trump, hainbeste *procés* eta estatus berri, hainbeste presa eta kristo... ihes-plana erabaki dudala. Kanpoko soinuaren bolumena jaitsi nahi dut letrokin, entzunak izatea eskatzen duten kontu batzuk entzunarazteko. Poesia eta pentsamendua, bietan jarrai, izango ditut hausnartarako lagun; denbora hiltzea, munstro hori akabatzea, denetan krimenik arrunt, zintzo eta bidezkoena dela gogoan; eta saiatuko naiz, kokotsa gora beti, zentzumenak eta sentimenak erne, gure zeruaren malbakoloreak, bere arku eta argiak, bere itzalen orgiak begiratzen. Zentzu politiko betean, lore bat izatea ardura (politiko) handia delako.

Badakit poesiak agian ez dituela kausa justuak irabaziko, baina asko laguntzen du. Badakit pentsamoldea aldatzeak iraultza oso trankil bat eskatzen duela, anbarean harrapatutako intsektu prehistorikoen antza duelako, eta, teknologiak ez bezala, gure garunen funtzionamendua ez delako azken milaka urteotan apenas aldatu eta pertsonon bizitza zikloan ez delako askorik aldatuko. Eta aldatzekotan, pazientzia handiz, beharrezkoak diren maila askotako kontraesanak sortzen jarraitu beharra dagoelako: gure buruaz pentsatzen duguna aldatzea, gure ukoei, ezinei eta errakuntzei begietara begiratzea, egindako gauza asko egiteari uztea, eta, zailtasuna biderkatuz, hori orain arteko jende berdina egitea. Aldaketa nahia eta aldatu nahi izatea ez baitira gauza bera.

Poema zolienak ere akuilatzeke, suspertzeke, sutzeke eta elikatzeko ahala duela aldarrikatu nahi dut. Poesia, artea, ez dela bulego bateko produktua, ezta ikasgela bateko lau paretan erreztatzen den oda bat ere. Kanean lantzen da, plazetan, bilkura publikoetan. Jendea da poetaren papera, poemaren bitartekoa. Nire-

tzat, poeta errealitatearen presioari erresistitzeko gaitzat, tentsio horretan datza erresistentzia, poema erresistentzia ekintza da. Eta ez da kezkatzekoa gosaldurretik dozena erdi gauza ezinezko amestea. Gogoa, mezulari herratu bat bailitzan, xederik gabe, historiarik gabeko erreinuak zeharkatzen ibiltzea. Kalatxorien hegaldietan pentsamendua desitxuratzea, pinguinoen lehengusu diren ubarroien urpekaritzarekin txunditzea, edo, gauean, balkoitik behera, bata bestearen atzetik, paperezko hegazkinak aireratzea, «ongi egizue bidea! Eta ez berandutu, mesedez!» erregutuz, hontz ala mozoloren batek mokoan hartu eta behar den helbidera, behar duen denboran eramateko. Ametsez kargaturiko mezulari noragabeak barrote, txarrantxa eta zaindaririk gabeko erreinuetaaraino ailegatzen direlako, gure minkideetaraino.

Ez egin bizitzan pilatutako azpijoko, min, kolpeen bilduma, dena tripetara ez sartu, bihotz geruzetan ez betikotu. Herri eta pertsona, «ihes-hodiak» ere behar direlako

Poetak esan bezala, defendatu gaituztenak, sentzilloki, ia oharkabean, belarra moztuz... eta murtzikatuz, gosez, ez ditzagun ahantzi. Eta biziberritzeko indarra duten musuak eman, usain arinez beterikoak, deskantsurako ohe sakon eta ezkutatu, edo balkoietan lore arraro eta exotiko, elkar musukatzen dutenentzat zeru ederragoen pean loratuko direlako. Eta ez egin bizitzan pilatutako min, kolpe eta azpijoko guztien bilduma, den-dena tripetara ez sartu, bihotzaren geruzetan ez betikotu. “Ihes-hodiak” ere behar direlako, pertsona eta herri, ebakua-zioa eta aireztatzea ezinbestekoa delako bizitza oxigenatzeko. Zorionsua izateak osasun ona eta memoria txar poxi bat eskatzen dituelako. Eta beti eta beteki, eutsi harro izate zoragarri horri eta aberria bizi. •

# EZAGUTU, DASTATU, GOZATU

Beertoki elkartekoek Zappa garagardoa sortu dute, benetako herri batek garagardo bat behar duelako

**E**zin da benetako herri bat izan benetako garagardo bat eduki ezean». Frank Zappak esana da hori, XX. mendeko rockaren eta kontrakulturaren aurpegi sonatuak. Villabonako Beertoki Kultur eta Gastronomia Elkarteko bultzatzaileek, baina, 2014ko uztailean deskubritu zuten Zapparen gogoeta hori, 7K as-tekarian argitaratutako garagardo artisauen inguruko erreportaje batean. Hor piztu zen metxa.

Beertoki Kultur eta Gastronomia Elkartea 2014. urtean hasi zen mamitzen, nahiz eta

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Garagardo artisauarekiko zaletasunaren bueltan batu eta Villabonan Beertoki elkarte sortu zuten lehenbizi. Geroztik, garagardo artisauen azokak, dastatzeak, bisitak, kontzertuak... antolatu dituzte, artean apal samarra den garagardoaren kulturari aparra emateko gogoz. Orain garagardo artisau propioa aurkeztu dute: Zappa.

2016ean sortu zen modu ofizialean. Igor Fernandez, Jon Ander Artola, Aitor Otegi eta Eneko Calvo dira proiektuaren bultzatzaileak. «Ez gara ez adin berekoak ezta kuadrilla berekoak ere, nahiz eta aspal-ditik ezagutzen dugun elkar», argitu dute. Villabona-Amasa-

ko Irrintzi Garagardo Azokaren bueltan inguratu ziren elkarren ondora, musikaren eta garagardoaren aitzakian. «Gogoan dut egun hartan argitaratu zen 7K-ko erreportaje hura aipatzen hasi ginela. Inguruko azokara begiratu eta garagardo gehienak Euskal Herritik

kanpokoak zirela konturatu ginen. Erreportaje horretan Euskal Herriko zortzi garagardo aipatzen ziren. Ordurako kontrolatzen genituen bertako garagardo artisauak eta denon artean hamaseira luzatu genuen zerrenda bat-batean. Horiek ezagutzera emateko zer-bait egin behar genuela pentsatu genuen».

Gogoeta hark segida izan zuen handik hilabete batzue-tara. Laurak mahai baten bueltan eseri –garagardo on bana parean hartuta– eta musika eta garagardoa batuko zituen proiektu bat sortu behar zutela erabaki zuten.

Musika, rocka. Eta, garagardoa, bertakoa eta artisaua. Gu-txieneko horietatik abiatu eta Beertoki elkarte sortu zuten

Ezker-eskuin, Eneko Calvo, Jon Ander Artola, Igor Fernandez eta Aitor Otegi.  
Gorka RUBIO | FOKU



eta horren eskutik 2016. urtean izan zen I. Euskal Herriko Garagardo Artisauen Azoka Villabonan. Aurten bete du hirugarren edizioa.

«Gure elkarteak bi helburu nagusi ditu. Batetik, Euskal Herrian dugun garagardo artisauen aukera zabal eta kalitate altua erakutsi nahi dugu. Eta, bestetik, herrian mugimendua sortu nahi dugu, garagardoa eta musika ekitaldiak eskaini eta herriari bizia eman», agertu dute.

#### GARAGARDOAREN KULTURA

Sortu geroztik urteroko azoka, dastatze saioak, fabriketara bisitak, musika emanaldiak eta beste antolatu ditu Beertoki elkarteak. Ekitaldi horiek guztiek helburu izan dute oraindik apal samarra den garagardoaren kultura piztea Euskal Herrian. «Ez gara asko, baina Euskal Herrian bada garagardo artisauen inguruko komunitate txiki bat, ekoizleak eta kontsumitzaileak batzen dituen. Egia da tradizioa falta dela, bidea egiteko dagoela, baina pixkanaka ari gara Euskal Herriko garagardo artisauen berri zabaltzen».

Villabonan, behinik behin, lortu dute mugimendu pixka bat sortzea. Beertoki elkarte baina lehen, herriko taberna bakarrean zegoen garagardo artisau bat dastatzeko aukera. Gaur egun, berriz, bost tabernetan, elkarte batean eta gaztetxean garagardo artisauen aukera zabalxeagoa eskaintzen dute.

Euskal Herriko garagardo artisaua esatean, Euskal Herriko ekoizleek modu artisauen eta naturalean ekoiztutako garagardoaz ari dira. «Ekoizpen prozesua da garrantzitsua. Erabat naturala izan behar du, aldagai kimikorik gabea. Le-

hengaiak ere primerako kalitatekoa izan behar du. Garagardo komertzialek zereal merkeagoak erabiltzeko joera daukate, adibidez. Erabat Euskal Herrian ekoiztua izatea ez da hain erraza. Batetik, garagardoa egiteko behar diren lehengai guztiak bertan eskuratzea oraindik ere ez baita erraza –baina bidean gaude– eta, bestetik, Euskal Herriko ekoizle batzuek hemendik kanpo ekoizten dutelako. Garagardo artisauen munduan, ekoizle asko nomadak dira. Alegia, ez daukate fabrika propiorik eta beste ekoizle batzuen baliabideak erabiltzen dituzte beren garagardoa egiteko. Gerta daiteke urte batzuetan horrela aritu eta gero fabrika propioa izatea».

Egunotan Villabonan dagoen Irrintzi garagardo azokan aurkeztu dute Zappa garagardoa. Irudian, Beertoki elkarteak eta lagunak garagardo berriarekin topa egiten. Jon URBE | FOKU

## SAGARDO LUPULUDUNA HERNANIKO ORKOLAGAN

Garagardoa egiteko lau osagai nagusi behar dira: ura, garagarra, legamia eta lupulua. Lehen hirurak erraz samar lor daitezke Euskal Herrian. Lupulua, baina, ez hain erraz, ez baitu garrantzirik izan euskal paisaian; normalean belar txar modura ikusi izan du baserritarrak eta ez dio garrantzirik eman. Iñaki Sanz-Azkue biologoak duela hilabete batzuk deskubritu zuenez («Hernaniko kronika»-n jasoa), 1950eko hamarkadan Hernaniko Orkolaga baserriko Antonino Pagolak bertako sagar eta lupulua nahastuz edari freskagarri oso berezia egiten zuen. Baratzean lanean zebiltzanentzat eta etxekoentzat bakarrik egiten zuen eta Pagolaren etxekoek gogoratzen dute oso edari freskagarria eta apar askokoa zela. «Egarriarentzako zegoen onena omen zen». Baina Antonino Pagolarekin batera itzali zen bere errezeta, ondorengoek ez baitzuten sagardo lupuludun hura nola egiten zen ikasi. Azkenaldian AEBetan eta Kanadan modan dago sagardo lupuluduna eta Galizian ere hasi omen dira probak egiten.





berri dute. Hasiera-hasieratik buruan izan dute garagardo bat sortzeko ametsa eta oraintsu bete dute beren desioa. Ostegunaz geroztik Villabonan dagoen Irrintzi Garagardo Azokan aurkeztu dute Zappa garagardoa. Dena sortu zen tokira bueltatu, eta, Zappari omenaldia eginez, bere izena duen garagardoa aurkeztu dute.

**DRUNKEN BROSEKIN ELKARLANA**

«Hasiera-hasieratik aipatzen genuen gure garagardoa egiteko aukera. Etxean hasi ginen egiten, Aitorren baserrian, Alkizan. Lapiko batean 20 bat litro inguru egin genituen, guretzat bakarrik. Berez ez da zaila garagardoa egitea, zaila dena garagardo ona egitea da. Garagardoa egitea, finean, kozinatzea da eta kozinatzea eta

saltsan ibiltzea dezente gustatzen zaigu», kontatu du laukoteak. Oraingoan, baina, pauso serioagoa eman dute eta mila litro garagardo ekoiztu dituzte Bilboko Drunken Brosekin elkarlanean. Drunken Bros Euskal Herriko lehenengotariko garagardogile nomada izan zen eta gaur egun Bilboko Basqueryn ekoizten dute.

«Goi mailako garagardogileak dira eta 2016ko azokan elkar ezagutzeko aukera izan genuen. Geroztik harremana mantendu dugu eta laguntasun horrek bultzatu gaitu proiektu hau elkarrekin aurrera eramatera», kontatu dute Beertokikoek.

India Pale Ale estiloko garagardoa da Zappa, «oso mikatza, zitrikoa eta belar eta lore aromekin». Egileen hitzetan, nortasun bereziko garagardoa

**India Pale Ale estiloko garagardoa da Zappa, «oso mikatza, zitrikoa eta belar eta lore aromekin». Egileen hitzetan, nortasun bereziko garagardoa da: «Apustu berezia da»**

**«Duela hilabete pasatxo egin genuen. Asko ikasi dugu Drunken Broseko garagardogileekin. Errezeta gurea da, baina beren aholkuak segitu ditugu»**

da. «Apustu berezia da. Ez da akaso publiko orokorrarentzako, baina garagardo artisaua kontsumitzen duenak jakingo du Zappak dituen ñabardurak sumatzen eta gozatzen. Gure gustuko garagardoa da, guretzako modukoa. Behin egingo dugu-eta!», diote umoretsu.

Dagoeneko mila litroak salduta dauzkate; aipatu Irrintzi azokan eta Villabona, Tolosa,

Donostia, Ordizia, Andoain, Irun eta Bilboko zenbait tabernatan izango da Zappa.

Aberatsa izan da prozesua. «Duela hilabete pasatxo egin genuen. Asko ikasi dugu Drunken Broseko garagardogileekin. Errezeta gurea da, baina beren aholkuak segitu ditugu. Egia esan, oso pozik gaude». Orain, ezagutzea, dastatzea eta gozatzea besterik ez da falta.

Beertoki elkartekoek Bilboko Drunken Bros garagardogileekin elkarlanean egin dute Zappa garagardoa. Irudian, ekoizpenaren une bat.  
GAUR8





Alai  
ZUBIMENDI

# iRRITZIA:



## Berandu da, baina...

**Maidar Iantzi  
Goienetxe**

**G**aztea nintzenean ez nien deus galdetzen. Orduan ez zitzaizkidan gai hauek interesatzen. Orain, gurasoak bizirik baleude, informazio pila bat galdetuko nien». Hala aitortu digu 36ko Gerran herritik bota zuten familietako baten semeak. Ondoan ditu garai hartan haurrak baziren ere, oroitzapenak bizi-bizi dituzten bi herrikide, bi ahizpa. «Atzo balitz bezala oroitzen naiz nola deitu gintuzten familiak plazara. Kontent-kontent nengoien igandetako arropa jantzi zidatelako. Bestak ziren eta bestetara gindoazela uste nuen», hasi da bietako bat konta-

tzen. Eta hortik aitzinera pasarte pasartearekin lotzen joan dira bi ahizpak, elkarri hitza kenduz. Zenbat gauza dituzten barrenean!

Memoria historikoaren gaia ateratzen denean beti eztabaidatzen dut lankide batekin. «Hagitz berandu da», azpimarratzen du berak. «Zergatik ez dira omenaldi eta elkarrizketak lehenago egin?». «Bai, baina... –azaltzen diot nik–. Beldur handia egon da. Gainera, herri ttipietan denek ezagutzen dute elkar, alde batekoek eta bertzeoek. Ondorengoek ez dute arbasoek egindakoen ardurarik eta denbora behar izan da solasean hasteko».

«82 urte pasatu dira, e, 70eko hamarkadan jada 40 urtetik gora zituzten emakume horiek eta galdetzen ahal zitzaaien», ekiten dio lankideak. Beti argudio berak erabiltzen ditugu, ez dugu behin ere eztabaida bukatzen. Baina gustatzen zait, interesgarria iruditzen zait, batez ere «zergatik ez da lehenago egin?» eta «zergatik orain?» galderen gibelean dagoena deskubritzen saiatzeko ariketa.

Ahizpek ere «zer iruditzen zaizue eginen dizueten omenaldia?» galdetu orduko bota dute: «Berandu da. Baina...», jarraitu dute, emozioa ezin ezkutatuta. •

## Haurdunaldi subrogatua ala alokairuzko sabela?

**Xabier Mikel  
Errekondo**

**K**ezka, eztabaida, irtenbidea eta legeen moldaketa lau hankako prozesu jarraitua aitzinera egingen duen gizarte osasuntsu baten bizkarrezurra da.

Haurra izateak/ez izateak erpin izugarri ditu eta guziek erantzun berehalakoa exijitzen dute.

Bada ahalmen ekonomikoaz baliatuta adopzioan hartutakorik edo ernalkuntza artifizialaren bidez lortutakorik, bide pribatu zein publikotik.

Bada haurrik izan nahi ez duenik eta bada bere sabelean izan ezin baina nahi duen emakumerik. Azken hauentzat ir-

tenbidea da haurdunaldi subrogatua. Ala alokairuzko sabelak dira? Zientifikoki ahal da eta juridikoki partaideak babestu litezke, baina etikoki? Nik argi dut haurra izatea desio soila baino gehiago dela, edo behintzat ez izatea bezain eskubidezkoa. Ezin duenari laguntzea zilegi da, legez behinik behin. Bestela, debeka daitezela *in vitro* ernalkuntza eta intseminazio artifiziaia...

Agentzien negozioa dela? Administrazioak kudea dezala %100ean. Legezkoa ez dela? Egokitu dezagun, batez ere alderik zaurgarrienak diren haurdunaldia eramanen duen emakumea eta hau-

rra babesteko. Emakumearen hautuari dagozkion eskubideengan egin behar dugu ahalegina eta asmatu, kontzienteki, prestatua eta borondatezkoa izan dadin, guraso izan nahi dutenek ordainduta, eta ezin badute administrazioak bermatuta. Esplotazioa da ekidin beharrekoa. Gizarte honetan merkantilizaziotik nekez egin dezake ihes inork ezertan.

Ondorioz, naturalki ugaltzeko ezina dutenentzat haurdunaldi subrogatuaren alde nago.

Eta etorkizunean haurdunaldia ume-tokitik at egingen balitz? •



Gorka Zozaia - @zotz\_  
Kimikaria

## Udako plan bi

**E**guraldiak oraindik izkin egiten badio ere, uda beteko egunak ditugu uztaile erdiko hauek. Auzo eta herriak erdi hutsik, lanean direnak ere erritmo erdian... ez gara beltzaran jarriko, baina badugu patxadaz bizitzeko astia egunotan. Kontenplaziozko bizitza dastatzea, aspertzeko parada izatea, horrexek behar luke izan oporraldiaren ardatz. Bakoitzak, jakina, nahi eta ahal duen moduan beteko ditu egun hauek, baina plazer duenarentzat, pare bat proposamen luzatuko dizkiot txoko honetatik.

Bata, zeruari begira jartzea. Berriz ere, treguarik ematen ez duen hodeitzak uzten digun heinean, oso gau interesgarriak bizitzeko aukera izaten ari gara asteotan. Eguzkia jartzear dela, izarrak oraindik agertu ere ez direnean, planeta bat baino gehiago agertzen zaigu zeruan egunotan. Uztaileko lehen erdian, ikusten zaila den Merkurio bera izan dugu arratsetako protagonista, gorrituz desagertzen den Eguzkitik gertu. Baina Merkurio festaren hasiera besterik ez da izan:

**Artizarra:** Leon kokatuta egongo da hilabete osoan, eguzkia jarri eta ordu pare batera ezkutatuko delarik ortzimugan.

**Marte:** Txanda-pasan ariko bailiran, Artizarra ezkututzen denean irtengo da Marte ekialdetik. Argi eta garbi igarriko zaio planeta gorria dela, indar biziz Kaprikornio aldean izango baitira dirdira gorriak. Hilak 27an oposizioan aurkituko da, Eguzkiak bete-betean jotzen duela gure norabidean, eta horregatik ikusten dugu horren deigarri (egun berean da ilargi beteareta eta egun batzuk lehenago behar-

bada hobe ikusiko da). Hurrengo oposizioak 2020ko urrian eta 2035eko irailean izango dira, beraz, probestu Marte begiztatzeko aukera hau.

**Jupiter:** Dozena bat ilargi berri aurkitu berri dizkioten planeta erraldoia Libran izango da hilabete osoan. Gauaren hasieran hego-mendebaldean aurkituko dugu ortzimugatik 25 bat gradura eta bizpahiru ordutara ezkutatuko da.


**Saturno:** Planeta parranderoena izango da eta ia gau osoan zehar ikusi ahal izango dugu, gauaren hasieran hego-ekialdeko zeruertzetik 20 bat gradura topatuko dugunetik aurrera. Sagitarion emango du hilabete osoa.

**Urano:** Eguzkia atera baina ordu pare lehenago ikusi ahal izango dugu hego-ekialdeko zeruertzetik 30 bat gradura, Ariesen, betiere, argi kutsaduratik libre diren orientazio egokiko lekuetan.

**Neptuno:** Akuarion emango du hilabete osoa eta ekialdeko zeruertzean agertuko da gauaren amaieran.

**Ilargia:** gure satelliteak ere emango digu oparirik hilabete honetan eta heldu den ostiralean, hilak 27, Lurraren atzean ezkutatuko zaio Eguzkiari. Hots, aurtengo bigarren ilargi eklipse osoa ikusteko aukera izango dugu; 21:30etatik 23:13ra bitarte luzatuko da eta mendeko eklipse luzeena izango da. Bidaian bazaudete, ia Europa guztian, Afrikan eta Ekialde Hurbilean ere izango da ikusgai Ilargiaren gorritzea.

Interesgarri dago zerua, bai, baina hodeitzak edota paretak ikuskizuna ekidingo badizute, honatx bigarren proposamen bat, zeruko argiak ordeztaruneko argiak piztu-itzali aritzeko: ebatz dezakezu irudiko problema? Eta hala bada, uste duzu posible litzatekeela xaflan beste motako zuloak egongo balira? •



Diseinatu xaflako hiru zuloetatik pasatzen ahal den (zeharkatu egin behar du) pieza solido bat, pasatzen denean zuloa osorik estaltzen duelarik.

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Nola eskertu

**O**rain hilabete batzuk Rupert Ordorikaren omenezko kontzertua egin zuten “Izar&Star” programaren barruan, Bilboko Kafe Antzokian. Dozena bat musika taldek oñatiarraren kantuekin osatutako kontzertuak eskaini zituzten.

Guztiek miresmena eta eskertza erakutsi nahi izan zioten Ordorikari. Hunkigarria izan omen zen gaua; hala diote kronika guztiek eta guzti-guztiek azpigitulu hau gehitu zioten, gainera: «Rupert ez zen bertan izan». Ordorika apur bat ezagutzen dugunok –baita, ez bairik gabe, ekimenaren antolatzaileek ere– badakigu bera ez dela halako ekimen eta ekitaldien zale, ez datorrela berarekin bat. Musikari ugari bere kantuak interpretatzen, bera bizirik, sasotsu eta aktibo dela... Eta emanaldian guztiak berari begira? Ze arrai! Seguruenik bihotzez eskertuko zuen ekimena, poza eman-go zion jakiteak hainbeste musika taldek eta entzulek bere kantuak miresten dituela, baina, era berean, egoera hori, aukeratu ez zuen protagonismo hori, deseroso ere egin ahal zitzaion.

Ruperri berari galdetu gabe idazten nabil honako lerrook, baina egia da berari gertatutakoa edo berak sentitu ahal izan zuena euskal eta batez ere gipuzkoar izaerarekin bat datorrela. Hilda, gaixo edo premia egoeran ez bada, ez ditugu halakoak guztiz onartzen edo bere horretan

datozen bezala hartu nahi izaten. Halakoak omen gara! Nabilen eta jarraitzen dudak bitartean, zertarako?

Horretarako ez da halabeharrez punka izan behar, nahiz eta Lleidak lagun batzuk RIP taldeari buruz lantzen dabiltzan fanzine-liburuan jasotako testigantzen artean bada taldea osatu zuten laukotearen hurbileko lagunak dioenak falta diren taldekideek ez zituztela ondo hartuko egin izan zaizkien gogorazpen kontzertu eta jaiak. Ziren bezala, umilak eta gauza txikiak zaleak izanik, ez zutela halakorik nahi izango. Hala gertatu ahal da askotan, baina ezin jakin!

Urrunago joan gabe burura etorri zait ezbehar baten ondorioz lantoki gabe gelditutako beste lagun bat.

Ingurukoek berari laguntzeko egin nahi zituzten ekimenak azaldu zizkionten bere lehen erreakzioa ezezkoa izan zen; ea zergatik lagundu behar ote zioten berari.

Gure izaerarekin bat datoz jarrera horiek eta erabat onargarriak eta ulergarriak ere badira izatez. Baina, bestalde, ikus ditzagun asmo horiek justu beste aldetik: zenbat jende dago bere onena emateagatik, komunitateari –dena delakoari– laguntzeagatik edo haien sorkuntzak jende asko hunkitu edo inspiratu duelako bizirik dagoen bitartean eskertu nahiko genukeena? Hartzailea, omendua, kontziente den bitartean, berak egindakoak besteentzat duen balioa jakin dezan, hilko den edo gaixotuko den inolaz ere itxaron beharrik gabe.

Baina bada zorionez, asmo horri buelta eman eta guztiok horren parte egiteko maniobra egiten duenik ere: horra hor, esaterako, Arrasateko *Arristi*. Herrian arlo askotan erreferente den honek bere 50. urteurre-

Zenbat jende dago bere onena  
emateagatik, komunitateari  
laguntzeagatik edo jende asko hunkitu  
edo inspiratu duelako bizirik dagoen  
bitartean eskertu nahiko genukeena?

na ospakizun erraldoi bilakatu zuen eta ehunka pertsonekin batera ospatu. Gauza oso antzekoa egin zuen Pello bergararrak ere, jubilatuta aspaldi baina erretiratuta ez dagoenak. Edo, azkenengo urteotan, Donostiako Udalak ematen duen Adarra garaikurraren entrega ekitaldiari sarituek eman dioten buelta originala: Fermin Muguruzak azken proiektua Euskal Herrian jendaurrean plazaratuz; eta Azkoitiko Anarrik “Anari gara” leloa are eta gehiago indartu eta taldea diren eta izan diren kide guztiak kontzertu errepikaezinean batuz.

Badugu zer eskertu eta baita ere nola hartu, dagokigunean. •

«Esfortzu  
esanguratsu bat  
egin nahian  
ari gara,  
jendearengana  
hurreratzeko  
prozesua gauzatu  
nahian»

ANDRES URRUTIA

EUSKALTZAINDIKO ETA AZKUE  
BIBLIOTEKAKO BURUA

Euskaltzaindiak Azkue Bibliotekako  
ondarea partekatzeko estreinatu berri  
duen erakusketa birtuala aitzakia,  
Euskaltzaindiaren eta euskara batuaren  
urteurren gainean ere mintzatu zaigu  
euskaltzainburua, adeitsu asko.

Xabier Izaga Gonzalez

Azkue Bibliotekako ondarea ezagutarazteko asmoz, Euskaltzaindiak erakusketa birtual bat zabaldu berri du. Oraingoz sei liburu daude ikusgai, baina aurrerantzean ale gehiagoz osatzen joango da. Azkue Bibliotekako buru Andres Urrutiarekin hitz egin dugu, eta, euskaltzainburua ere badenez, Akademiaren 100. eta euskara batuaren 50. urteurren ere hizpide izan ditugu bidenabar.

**Orain nahi duenak oso modu errazean izan dezake Azkue Bibliotekaren berri.**

Gure Bibliotekatik, baita gure Artxibotik ere, batez ere jendearen eskuetan jartzeko zerbait atera daiteke, kaleratu eta jendearen interesa eta jakin-mina pizteko. Horretarako, ikusi duzun bezalaxe, sei item edo erreferente hartu ditugu, lurralde desberdinetakoak, euskalki desberdinetakoak, garai desberdinetakoak, eta jendeari hori eskaini, gero jendeak, sakondu nahi baldin badu, jarraitu eta jakin dezan gure Azkue Biblioteka eta Artxiboa hortxe daudela.

**Beharbada Euskaltzaindiak gizartetik urrun zegoen erakundearen irudia zuen. Teknologia berriek jendartera zabaltzeko aukera handiagoa eman diote, ezta?**

Bai, horixe da. Teknologia berriak erabili nahi izan ditugu, eta erabili behar ditugu, gure ondarea gizarteratzeko eta batez ere Akademiaren zereginak eta nondik norakoak jendearengana hurreratzeko. Ez bakarrik webgunea; hau, gainera, nik usate dut lasterrera berrituta ikusiko dela eta are zerbitzu gehiago eskainiko dituela. Bestetik, sare sozialetan ere bagabiltza. Esfor-

tzu nik esango nuke esanguratsu bat egin nahian ari gara, hurreratzeko prozesu hori gauzatu nahian.

Orain dela hamar urte pentsaezina zena gaur egunean guretzat errealitate bat da. Hiztegi-gintzaren ikuspegitik, norbaitek hitz baten inguruan informatu nahiko balu, horren historia, nola agertzen den hiztegiaren, hitz horren erabilera gaurko corpusaren arabera, horra hurreratzeko baldin bada eta hiztegi-gintza kontuetan sartzen baldin bada, berehala aurkituko ditu horrelakoak. Hor ditu Oro-

tariko Euskal Hiztegia, historiari buruzko informazioa ematen duena, baita gaurko definizioari buruzkoa ere; Euskaltzaindiaren Hiztegia, honek nola definitzen duen hitz hori eta zer-nola-ko adibideak ematen dituen erabilaren ikuspegitik, eta, nola ez, gero nola erabiltzen den hitz hori gaurko prentsan, literaturan, iturrietan; horretarako, Lexikoaren Behatokia dauka, XX. mendeko corpusa...

**Eta badirudi arrakasta dutela, jendeak erabiltzen dituela. UZEIren ikerketa baten arabe-**



## AZKUE BIBLIOTEKAREN LIBURUTEGI BIRTUALA ETA BI URTEURREN

Ondo ezaguna da “*Paris bien vaut une messe*” esamoldea, Nafarroako Henrike erregeak Frantziako Henrike VI.a bihurtu aurretik esan omen zuena. Berak esan al zuen hori, ordea? Eta “Frantziako tronuak meza bat eta gehiago balio du” esateko gauza ote zen, euskaraz alegia? Uste izatekoa da ezetz; nolanahi ere, badakigu Frantziako errege ere izan zela eta hartarako katoliko bihurtu zela. Nor eta Joana Albret Nafarroako erregina protestantearen semea. Joana Albretek bere erresuman protestantismoa hedatzeko, Testamentu Berria euskaratzeko agindu zuen. Horren arduraduna Joanes Leizarraga izan zen, euskarazko prosarik bikainenetakoaren jabea. Erreforma protestanteak katolizismoaren intsentsuak harrotu zituen eta haren kontrarreformak, besteak beste, Lorenzo Scupoliren “Combattimento spirituale” arrakastatsua zabaldu zuen Europan zehar, baita Ipar Euskal Herrian ere, euskara baliatuta. Obra horren itzultzailea Silvain Pouvreau frantsesa izan zen. Pouvreau Baionara etorri zen, bertan euskara ikasi, apaiztu eta zenbait lan eman zituen euskaraz, esandakoaz gainera.

Gure historiaren, hizkuntzaren eta kulturaren berri jakiteko ez da beharrezkoa aipatutako lanok irakurtzea. Gaur egun, besteak beste, klik batez Euskaltzaindiak zabaldu berri duen erakusketa birtuala bisitatuz horrelako hamaika gertaera eta bilakaera aurki daitezke. Bere lana eta ondarea jendartean partekatzeko asmoz, eta teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatuz, Akademiak euskararen alorreko zerbitzuak biderkatu egin ditu azken urteotan. Azkena, Azkue Bibliotekako ondarea ezagutarazteko erakusketa birtuala. Bere bibliotekako katalogoko zenbait liburu esanguratsu jarri ditu eskuragarri, haien ezaugarriak, testuingurua eta haien gainera zenbait bitxikeria agertuz. Eta aurrerantzean Azkue Biblioteka eta Artxibo Zerbitzuko «harribitxi» gehiagok hornituko dute erakusketa.

Leizarragaren “Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria” (1571) eta Pouvrearen “Gudu espiritual” (1665) obrekin batera, honako hauek daude biblioteka birtualean ikusgai: Manuel Larramendiren “De la antigüedad, y universalidad del bascuense en España: de sus perfecciones, y ventajas sobre otras muchas lenguas” (1728) eta “El imposible vencido: arte de la lengua bascongada” (1729); Humboldtaren “Bocetos de un viaje a través del País Vasco” (1889), Unamunok itzulia eta idazle bilbotarraren hitzaurrea duena; Joakin Lizarragaren “Urteco igande guztietarako platicac edo itzaldia” (1846); eta Frai Bartolome de Santa Teresaren “Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba” (1816).

Aurten, obra horiek bezala euskarari “*behar duien tornuia*” eman dioten bi gertaeraren urteurrenak ere ospatuko ditu Euskaltzaindiak bere XVII. Biltzarrean: Akademiarena berarena eta euskara batuarena. Urriaren 4an hasita, hiru egunez, ehun urtean euskararen inguruan egindako lanak gogoratuko ditu Arantzazun, bereziki 1968an leku berean egin zuen Biltzarra. Euskara batuak «egin duen bidea azaldu, egungoaz gogoeta egin eta eginkizun dagoena zehaztu» nahi dute. Ez da gutxi, gero.

«Euskaltzaindia  
zerbait baldin bada,  
azken batean  
euskaldunei  
baliagarri,  
erabilgarri eta  
onuragarri zaien  
neurrian da, eta  
bidegintza horretan  
ari gara»

ra, euskaldunok oso zintzoak  
garela hizkuntza arauak bete-  
tzen. Hizkuntzarekiko intere-  
sa dago, beraz.

Akademiak badu bere erantzukizuna ahalik eta modurik azkarrean, zabalenean, ulergarrienean eta didaktikoenean arauak, gomendioak eta irizpideak jendearengana helarazteko, eta ahalegin horretan ari gara. Hori da gure helburu nagusia. Ez da bakarrik arauak ematea; gero, arau horiek gizarteratu egin behar dira eta horretan Euskaltzaindiak badu egin-kizuna, erantzukizuna, baita



aurrera begira ere, eta engaia-  
mendu gogorra herriaren eta  
euskal gizartearen aurrean.

**Jendartera hurbiltzea, beraz,  
Euskaltzaindiaren helburu  
nagusietako bat da.**

Dudarik txikiena ez izan. Ni behintzat, euskaltzainburu naizen aldetik, beti izan dut helburu hori, uste baitut Akademiak besterik gabe, herririk gabe eta gizartean txertaturik egon gabe, ez duela inolako esanahirik ez inolako zereginik. Euskaltzaindia zerbait baldin bada, azken batean euskaldunei baliagarri, erabilgarri eta onuragarri zaien neurrian da, eta bidegintza horretan ari gara. Batzuetan azkarago ibiltzen gara, beste batzuetan pixka bat geldotxoago, baina helburua horixe da, ez bakarrik emaitza zientifiko eta akademikoak, eta horiek behar-beharrezkoak dira, euskara batua, euskalkiak eta abarrekoak proiektu nolabait nazionalak egiteko. Hor dauzkagu besteak beste, lehen esan dudan bezalaxe, hiztegi gintza, [Euskararen Herri Hizkeren] Atlasa, euskal onomastika eta euskal toponimia, euskaldun paisaia konfiguratzeko guztiz garrantzitsuak direnak. Helburuak horiek dira, baina ez bakarrik proiektuak egitearren, ezpada egitasmo horiek gero izan behar dute eragin berezia eta eragin esanguratsua herriarengan. Herriak ez badu erabiltzen, herriak horren berri ez baldin badauka, alfer-alferrik ari gara.

**Euskaltzaindiak lehendik ere  
euskalduntze eta alfabetatze  
prozesuan parte hartzeko  
konpromisoa izan du, baina  
orain ahalegin horrek are na-  
barmenagoa dirudi; esate ba-  
terako, lankidetzan, erakun-  
de publikoekin ez ezik, herri  
erakundeekin ere bai.**

Hori da. Azken batean, Euskaltzaindiak, historian zehar eta batez ere nik esango nuke gerraren ondorengo urteetan, hainbat ekimen aurrera eramane behar izan zituen: bertso-larritza, euskalduntzea eta alfabetatzea... Garrantzitsuak izan ziren bere garaian eta gizarte zibiletik aurrera egin eta ekimenok beren bidea egitea lortu zen. Baina Euskaltzaindiak orain egin behar duena da, gure ustez, bere zereginak horretan jarri; hau da, euskara aurrera eramane, doitu, gaitu, eguneratu, eta etengabeko eguneratze horretan jendeari laguntza, euskarriak eskaini, gauzak erraztu. Bide horretatik ikusten dut nik Euskaltzaindia, akademikotasunari eta zientifikotasunari ezer ere kendu gabe, baina, bestetik, gizarteratze prozesu horretan behin eta berriro bere burua murgilduz, eta aurrera eramanez. Eta horretan hortxe daukagun gure biblioteka birtual hori beste ahalegin txikitxo bat da, beste printza bat prozesu horretarako.

**Aurten Euskaltzaindiak bi urteurren ospatuko ditu, erakundearen 100.a eta euskara batuaren 50.a.**

Bai, biak batera datoz. Orain dela 50 urte orduko euskaltzainek erabaki zuten pauso irmoak, sendoak ematea euskara batuaren ikuspegitik: euskara batu hori orain dela 50 urte hasi zen formulatzen Arantzazuko Biltzarrean.

Gogoratu egin behar da Euskaltzaindiak lehendik ere, Azkueren garaian, 1935. urtean, gipuzkera osotua proposatu zuela. Gerrak hori desegin egin zuen, baina nik esango nuke asmoa, jomuga nagusia beti izan dela batuarena. Ez bakarra, e?

Orain bi urteurrenak etorri dira batera; alde batetik, ehun



Luis JAUREGIALTZO | FOKU

urte betetzen ditugu, nik esango nuke batez ere 2019an, 1919an antolatu baitzen benetan Euskaltzaindia, 1918an hasi bazen ere. Eta 2018koa, ezinbestekoa dena guretzat, euskara batuaren inguruko oroipen hori egitearren. Horretarako Arantzazun egingo dugu jardunaldi bat, biltzar zabal bat.

**Balantzeaz gainera, aurrera begirako hausnarketa ere egingo duzue, ezta?**

Nik esango nuke pixka bat ikusi behar dugula 50 urte hauek zer izan diren, nondik nora joan diren, zer daukagun zuzentzeko edo zer gehitzeko, zer falta zaigun hizkuntzaren estandarizazio etengabea; horrelakoak ez dira sekula santan amaitzen, hizkuntza gauza bizia baita. Eta hortik aurrera, proposamenak jaso seguru asko hurrengo urteetan Euskaltzaindiak proposamen horiek aurrera eramateko.

**Euskara lan tresna duten arlo-etako jendearen eta oro har herritarren ekarpenetara zabaldu duzue biltzarra.**

Bai, bai, hori jaso nahi dugu. Alde batetik, eragile horien ahotsa jaso nahiko genuke, eragile horiekin hitz egin dugu eta parte hartuko dute esanez bakoitzak bere arloan nola ikusten duen euskara batuaren ibilbidea, nondik norakoak eta abar; baina, bestetik, herritarren, ikertzaileen eta bestelakoen artean ere zabaldu dugu komunikazioak eta abar aurkezteko aukera. Horrela euskara batuaren kaleidoskopioa izan nahiko genuke. Eta nik ez nuke bakar-bakarrik euskara batu horretan zentratu nahi, esango nuke euskararen, euskararen munduan oro har. Baina euskara batuan batez ere, guztion arteko komunikazioa errazteko tresna bezala hartu dugun neurrian.

**Biblioteka birtual horretan Joakin Lizarraga nafarraren liburu bat ageri da, Iruñerriko euskararen idatzia. Oraindik orain entzun diogu politikari bati euskara ez dela Nafarroako hizkuntza esaten.**

Baten batek esango lukeen bezalaxe, zuk aipatzen dituzun bi horiek, esan gabe doa bigarrenak zer esan duen lehenengoaren berri jakin gabe; hau da, euskara Nafarroaren hizkuntza ez baldin bada, zer da, ba? Azken batean, baten batek esaten zuen Nafarroan mintzatzen direla euskararen euskalki guztiak bizkaiera izan ezik, eta nik uste dut baten bat baldin bada, kantak esaten zuen bezalaxe, euskal arragoa, non kaleidoskopio hori batzen den, Nafarroa dela; nik uste dut Nafarroa hor dagoela, erdi-erdian, eta Nafarroa herri euskalduna ez baldin bada, ez dakit, ba, zer izango garen... Seguru nago horiek borro-

«XVII. Biltzarrean ikusi behar dugu 50 urte hauek nondik nora joan diren, zer daukagun zuzentzeko edo zer gehitzeko, zer falta zaigun hizkuntzaren estandarizazio etengabea»



ka politikoaren unean uneko suak direla. Gero, errealitatea, zorionez, gure kasuan, beste bat da. Nafarroa herri euskalduna da, guztion artean egiten dugun Euskal Herri euskaldun hori, eta euskara guztion artean partekatu behar dugun balioa eta komunikabidea da; hau da, komunikazio tresna eta nortasuna ere ematen diguna, dudarik gabe.

**Amaitzeko, zorionak Euskaltzaindiari, urte askoan. Beste-rik erantsi nahi baduzu...**

Aurrera jarraituko dugula eta espero dezagun aurrera egiteko bide horretan berriro ere elkartzea eta berriro ere aukera izatea gure berri emateko. Eta zuek ere gizartearen aurrean zabaldu ahal izateko. Komunikabideek sekulako lana eta sekulako garrantzia duzue batez ere euskararen zabalkunderako eta euskal kulturaren aurreratzerako.



June PRIETO | FOKU

## IKUSMIRA

# TXIKITAKO LAGUN HANDIAK

Festetan dena da desberdina. Euriak ez du askorik inporta, ez dago ezertarako presarik eta umore ona da nagusi. Jendetza, ilarak, zarata... dena zaie samurragoa helduei festa garaian. Ez dira hainbeste haserretzen, dantza egiten dute, barre erraz samar, ordutegiak ahazten zaizkie... Eta, batez ere, lagunekin egoten dira. Jaiak laguntasunaren apologia egiteko egunak direlako. «Aspaldiko» eta «aspaldiko», orain muxua, orain zaplada bizkarrean. Harrituta geratzen gara, hainbeste lagun nondik atera ote dituzten gurasoek. «Txikitako lagunak» direla esaten dute, guri ez iruditu arren, haiek ere haur izan zirelako behinola. Gu txikiak omen gara oraindik, baina dagoeneko lagun handiak ditugu, festarako konpainia paregabea. Gure aitonak dio bere garaian parranda egiten bakar-bakarrik ikasi zutela eta orain, guri, erakutsi egiten digutela. Parrandero galantak izango omen gara. Tira, «aspaldiko» esanez gu ere elkartuko ote gara hamarkada batzuk barru hemen, festa honetan....

Amagoia Mujika Telleria



**Garazi Goia - @GaraziGoia**  
Idazlea

## Oporretarako irakurketak

**Urteko garai honetan tradizioa den bezala, oporretan gozatzeko irakurketa batzuk gomendatuko ditut aste honetan. Eta, zutabe honi dagokion gaiari eutsiz, Londres buruzko bi liburutan zentratuko naiz, bata nobela, bestea ez-fikzioaren alorrekoa.** Londres

etorri behar den edozein turistarentzat, nahiz lehenengo aldia izan nahiz aurretik ere hiria bisitatzeko aukera izana izan, irakurketa ezin hobeak dira beste perspektiba bat edo informazio osagarri interesgarria izateko eta bisita aberatsagoa izateko.

Zadie Smith idazle britainiarraren “White Teeth” da lehenengo gomendioa. Ezagutzen ez duzenontzat, 1975. urtean Londresen jaio zen Smith eta 2000. urtean argitaratu zuen bere lehenengo nobela, aipatutako “White Teeth”. Liburuak arrakasta izugarria izan zuen, izen handiko sariak lortuz. Idazlea etorkizun oparoko idazleen zerrendan ere sartu zuten askok zuzenean, “Salman Rushdie berria” ezizena (eta presioa) bere gain jarrita besteak beste. Ordutik beste lau lan kaleratu ditu eta bere hurrengo lana datorren urterako espero da. Bigarren Mundu Gerran elkar ezagutu zuten ingeles baten eta bangladeshitar baten arteko harremana ardatz bezala hartuta, orduan hasitako adiskidetasun horren garapena gerra amaitu eta 30 urtera du kontagai “White Teeth” nobelak.

Familien arteko harremanak eta sustrai eta jatorri etniko ezberdinen eragina Londresen bizitza berriak eraikitzerako orduan dira narrazioko gai nagusiak. Fundamentalismoak ere leku berezia dauka nobelan, erlijioaren testuinguruan eta harremanak sortzerako orduan. Fikzionatutako hainbat egoerak errealismo handiz biltzen dituzte hemen bizi garenok edo turista moduan etorritakoek ikus eta senti ditzaketen dinamikak, Londres hiria mundu osoan berdingabe egiten duen egoerak deskribapen zehatzez kontatuz.

Idazlearen testuinguru pertsonala adierazgarria da baita. Aita ingelesa eta ama jamaikarra zituen, apurtutako familia batean hezia izan zen, fama onik gabeko eskoletan ikasi zuen, eta, hala ere, Cambridgeko unibertsitate ezagunean egin zituen bere unibertsitate ikasketak eta han idatzi zuen “White Teeth” nobelaren lehenengo zirriborroa. Idazleak Londresekin duen lotura pertsonal estua eta berezia garbi geratzen dira nobela honetan eta aipagarria da ere bere lan denak Londresen kokatzen direla. Bide batez, Smithek idatzitako istorio labur bat euskaraz eskuragarri dago, Paul Beitiak itzulua, “Ero esan didate” izenburupean.

Bigarren liburua, “White Teeth” bezala 2000. urtean kaleratua, dagoeneko “klasiko” bat bihurtu da: “Peter Ackroyden London: The Biography”. 79 kapitulutan banatuta, Erdi Arotik hasi eta XXI. mendera arte, pasarte historikoak, anekdotak, idazlearen behaketak, hiriaren pertsonalitate apartekoa definitzen duten ezaugarriak, mapak, irudiak, paradoxak, aniztasunaren deskribapena eta metaforak, den-denak 800 orritan bilduta. Hiriak idazleari sortu dion obsesio baten marka eta ukitu pertsonal bat nabarmenak dira oso narrazioan, pasarte asko lehenengo pertsonan idatzita daudelarik.

**Bada esaera bat ingelesez honela dioena: «Londresez aspertu bazara, bizitzaz aspertu zara». Samuel Johnson idazleak esan zuen, XVIII. mendean. Alegia, Londresek eskaintzen dituen aukera guztiekin bizitzako egun guztietan dagoela egiteko interesgarriren bat. Beste bi liburuak irakurtzeko denborarik edo irakurtzeko zaletasunik ez duenarentzat, esaera horretan oinarrituta eta izenburu berdinarekin, Londresko 365 leku biltzen dira ilustrazio eta argazkiz betetako liburu batean. Ez nuke beste bi liburuen parean jarriko, baina turista gida tradizionaletik haratago hiria esploratzeko beste metodo baliagarri bat da dudarik gabe. •**



Argi dio esaerak: «Londresez aspertu bazara, bizitzaz aspertu zara». GAUR8

# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



Jaime BASTERRETCHÉ

## KIM NOVAK ETA CARMEN AGUADO, KAMERAREN BI ALDEAK

1965. urteko ekainaren 3tik 13ra egin zen Donostian Zinemaldiaren XIII. edizioa. Itxierako saioan eman zuten Terence Young zinemagilearen azken filma, "Moll Flanders". Lan horren protagonistak Kim Novak eta Richard Johnson aktoreak ziren, pantailatik kanpo senar-emazteak. Goiko argazkia Jaime Basterretche argazkilariak egina da, izatez ziburutarra, baina Donostian bizi zena. Kim Novak Maria Cristina hotelera iritsi zen unea jasotzen du argazkiak. Irudian atentzioa ematen du Carmen Aguado Fernandez donostiarrak; bere kamera eskuan hartuta, Kim Novak filmatzen ageri da. Bere senar Jose Luis Urkia eta biek hamaika erreportaje egin zituzten bai telebistarako bai zinemetan ematen zen No-do albistegirako. Aguadok egindako lanen artean nabarmentzekoak dira Maria Callasek Bilbora egindako bisita, Javier Aguirreraren "Pasajes tres" lana eta Aceros Hevaren inguruko erreportajea. Azken horretan Fernando Larruquertekin eta Julio Amosteguirekin batera aritu zen. Gainera, Jose Luis Urkiak eta biek Richard Lester aktore estatubatuarrek Bilbon egindako egonaldia ere jaso zuten.

# GAUR8

*ireki gure leihoa*



8 0721

9